

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2016-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Joan den martxoaren 22an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren (GLH) 2016ko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena onartu zuen; Kontu Orokorra osatzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontuek (GFA), foru erakunde autonomoen kontuek (Uliazpi Fundazioa eta Kabia) eta bere sozietate publikoen kontuek (IZFE, Bidegi eta Etorlur Gipuzkoako Lurra). Txostenari Osoko bilkurako kide batek boto partikularra jarri dio.

HKEEk aldeko iritzia plazaratu du Gipuzkoako lurralde historikoaren gainean, unean uneko salbuespenak azpimarratu dituela. Bada, txostenak kontularitzako hainbat doiketa jaso ditu, GFAREN Diruzaintza Geldikina 50 milioi euroan handituko luketenak. Gainera, ezin zehaztu izan dira ibilgetu material eta ukiezineko zenbait kontu-sail.

Txostenak fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakusten duen egoera finantzarioa aztertu du eta nabarmendu du itunpeko zergen diru-bilketak izan duen igoera, eragiketa arruntek eragindako emaitzaren igoera eta Diruzaintza Geldikinaren murrizketa, baliatu gabeko maileguengatik diru-sarrerak aintzat hartu gabe. Baliatutako zorpetzea 55,9 milioi euroan murriztu da.

Epaitegiak, berebat, aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun helburuak bete direla adierazi du. GFAK Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko txostena Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioari igorri dio eta administrazio honek ez du salbuespenik adierazi.

Fiskalizatutako erakundeek zuzentasunez bete dute euren ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen lege arautegia eta unean uneko akatsak azaleratu dira Langileriaren atalean (enplegatuei ordaindutako ordainsari jakin batzuetan PFEZA salbuestea) eta Administrazio kontratazioaren atalean (3 zerbitzu kontratu txikiaren moldea baliatuta esleitu dira, 1,2 milioi euroren zenbatekoan; eta 5 zerbitzutan, guztira 2,9 milioi euro egin dutenetan, lizitazio prozedura atzerapenez abiarazi da).